

Preso politiko eta sozialentzat askatasuna

Alderdi, 289. zk., 1973-

- Bere bereak dituen kultura eta gizatasuna eta zor zaion askatasuna galduta edo galtzeko zori gorrian bizi den Euzkadiren aurrean.

Euskotar bakoitzak ba du, noski, bai ideoloji aldetik, baita filosofi eta erlijio aldetik ere, bere leialtasunak eskeintzeko eskubide garbia. Baina bereztasun onek ez dio erritasunean elkar izateari kalterik egiten. Israelen ikusi genezake gaur bertan fenomeno berauxe nola gertatzen ari den. Israeldarrek elkar lotzen dituen instituzioak denak errespetatzen dituzte. Guk ere ba dugu, ainbeste ez bada ere, elkar artzen gaituen instituzioa: Euskadiko jaurlaritza, garai estuenetako batean erriak berak aukeratua izan zena. Jaurlaritzaren bide au ez da bear bada gaurkotua izan, baina idekia dago gaur sortu diren indar berriei.

Joka dezagun buruz.

Gaurko egoera latzean gure erriak orixe eskatzen du: burua, buru otza. Gure erria auldua eta zatitua dagoela uste duen arerioari aurpegi barea eta sendotasuna erakutziko diona.